

MARIAREN GURUTZBIDEAN

SARRERA

Hemen gatortzuz, Ama,
guziok batera,
gurtzbidean Zuri
lagun egitera.
Kalbariora gatoz
Zeugaz ikastera,
bizi nahi dogulako
Jesusen antzera

1

Jesusen sorlekua .
Amaren sabela,
mundura jaio nahita
erantzun ustela.
Baztar baten jaio da
ijito bezela,
Jainko Semearentzat
hori da hotela!

2

Jesus jaio orduko
igesi kanpora,
Erodesek nahi leuke
bota lur zulora.
Aita-Ama-Semeak
ospa Ejiptora,
zerurako bidea
beti aldasgora.

3

Lege Zaharra beteaz
Jerusalenera,
Simeonek ezpata
dakartso aurrera.
Hak sastaka bihotza
batetik bestera,
poza ta nahigabea
ohi datoz batera.

4

Hamabi urte eta
hau da erantzuna!
Amak ezin ulertu
belarriz entzuna:
"Aitak emonda daukat
nik eginkizuna";
garratza izan ohi da
sarri maitasuna.

5

Urteak joan-etorri
bizitza aurrera,
dana doa bardintsu
gitxi gorabehera.
Jose hil jakon eta
alargundu bera,
aingerurik ez dator
gaur Nazaretera.

6

Hogeita hamar urtera
Jesusen Amari:
"Erantzun behar deusat
Aitaren deiari".
- "Zoaz ta izan, Seme,
Haren mezulari",
baietzak sarri dakar
malkoak ugari.

7

Hasi da herriz herri
ordua da-eta,
Aitak bialdutako
maisu ta profeta.
Batzuk pozik, besteak
amorruez erreta,
hau ikusita, Ama
nahigabez beteta.

6

Senideakaz Ama
Semearen bila,
askoren ustez dago
burutik kaskila.
"Nire ama, senide
dira hamar mila:
Aitari entzun eta
jarraitzaile pila".

9

Mariak sortu Jesus
grazia bitarte,
Amak Jesusen bizi
barrian dau parte.
Hortik sortu da gure
kristau senitarte,
zenbat zalantza, kezka
hau ulertu arte!

10

Batzuk salatu eta
besteak ukatu,
kriminala balitz lez
gogor zigorkatu.
Ez da falta zintzoa
zeinek kondenatu;
Jesusek parkatu eta
Amak bedeinkatu.

11

Kurutza lepoan ta
jenteak harrika,
Kalbarioan gora
jausi ta jagika.
Badozuz lagun onak
Simon, Beronika...
geu be hemen gaukazuz,
Ama, zeuk bedeinka.

12

Semea kurutzean
Ama, zu aurrean,
Zuk Haren azken nahia
jaso beharrean:
"Neu lez zaindu egizuz
Eleiz batzarrean,
uste osoa jarriz
goiko indarrean".

13

Egoera tristean
laster da azkena,
hau da ikuskizuna,
hau Amaren pena!
Orain zelan ordaindu
holako krimena?
Zeuk bakarrik ahal dozu
egin amarena.

14

Aitaren eskuetan
emlon au arnasa,
eta dan giugaitik
hori da demasa...
Hau bai Marfiarentzat
momentu eskasa;
guk hau jakinda, ezin
emon eta pasa.

15

Ama-seme-alabok
alkartasunean,
lagun izan gaitez
kurutzebidean.
Lagun eiguzu hemen
gabiltzan artean,
gero alkartu arte
zorion betean.